



**Unai Fernández de Betoño - UnaiFdB**  
Arkitektoa

## «Bilbao Bizkaia» marka

arkitektura / zientzia / teknologia

**A**ho bete hortz irakurri dut martxoaren 4ko le-  
rroburu bat: «Herri hau abiadura handiko tre-  
narekin zigortu dute». Harridura ez dit baiez-  
tapenak sortu, baizik eta zeinek bota duen:  
**Juan Maria Aburto Bilboko alkateak!** Sinetsi  
ezinda, adierazpenaren bideoa bilatu dut, Espai-  
niako enpresaren munduko ustezko eliteak osatutako Nueva  
Economía Forum *lobby*-aren gosari-hitzaldian. Berehala  
egiaztatu dut esaldia testuingurutik kanpo atera dutela ka-  
zetariak, Aburtok benetan aditzera eman duena «herri hau  
abiadura handiko trenik gabe zigortu dute» baita. Gauzak  
bere lekuan. Koaderno gorritik gehiegi atera gabe.

Bilboko alkatearekin batera, Rementeria Bizkaiko ahaldun  
nagusiak ere parte hartu du hitzaldian. Bilbao eta Bizkaia.  
Hitzaldian "Bilbao Bizkaia" lurralde-marka azpimarratu dute  
bi jeltkideek. "MyBilbaoBizkaia" da, hain zuzen ere, 2009tik  
saldu nahi duten produktu turistikoaren izen komertzialeta-  
ko bat. 2010ean "Bilbao Guggenheim ++" ere erabili zuten,  
Sanghaiko ez-dakit-zer erakusketa *supergarrantzitsu* batean.  
2011n "Bilbao Bizkaia Next" ere proposatu zuen hiri-marketi-  
naren izar Alfonso Vegarak, baita haren tokiko dizipulu izan  
nahi duen Andoni Aldekoak ere, orain Urkulluren aholkulari  
dabilena. Aburtok "Bilbao 30" ere aipatu du hitzaldian, Bil-  
boko erdigunetik 30 minutuko distantzian ibili (gidatu) dai-  
tekeen lurraldea adierazteko. Alegia, *city branding*-aren ide-  
ologoei Bilbo txiki gelditu zaie mundu-mailan lehiatzeko, eta  
inguruak ere propagandistikoki fagozituatu, birbataiatu eta era-  
bili nahi dituzte.

**Bilbotik oso gertu egon arren, hala ere, Ezkerraldeko udale-  
rriak irakurketa megalomano hauetatik alde batera uzten  
dira behin eta berriro. Zenbaitetan «Bilbao Bizkaia» marka-  
ren erabileraren zeharkako onuradun ere izan arren, orain-  
dik periferiatzat jotzen dira Santurtzi, Portugalete edo  
Sestao; erdiguneko Bilbao Ekintza erakunde publikotik,  
bederen. Eusko Legebiltzarrean, ordea, erdi ahaztutako es-  
kualde hori suspertzeko batzorde txostengile interesgarria  
jarri zen abian pasa den 2015ean, EH Bilduren ekimenez. Ez-  
kerraldea eta Meatzaldea sozioekonomikoki berpizteko onu-  
ragarria izango da Bilbo-efektua, neurri batean, baina uste  
dut Guggenheimaren distiraren arrastoa jarraitzen saiatu  
baino, edo saiatzeaz gain, eskualde horren garapen endoge-  
noaren alde ere apustu sendoa egin behar dela administra-  
zio publikotik.**

**Garapen endogenoa. Erraza da esaten, zaila egikaritzen.  
Baina hiriburuen protagonismo azpiratzaile geldiezinak  
nazioartera begira dauden honetan, edozein hirigintza-  
erabaki epe motzeko turista-hotelen erreserba-kopuruan  
justifikatuz, inguruko eskualdeek epe luzeko tokiko begira-  
da zorrotzu behar dute. Gertuko ekonomia-sarean txertatuta-  
ko industria sustatuz, landa eremuko berezitasunak indartuz,  
natura-espazio degradatuak berreskuratuz, tokiko nekazaritza  
eta energia sortzea bultzatuz... Alegia, burujabetza maila guz-  
tietan suspertuz, Luxenburgoren egoitza duten enpresen menpe  
gehiago ez egotea helburu. Hiriburu handiaren itzalpean seku-  
lako potentziala dagoelako. •**

3 BEGIRADA:



ILUSTRAZIOA: UNAI FERNANDEZ DE BETOÑO